

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko urriaren 18a. VIII. urtea. 2.291. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Ahots onenek bat egingo dute bi lehiaketetan, aste beteko epean

Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan 19 koru ariko dira, tartean Errenteriako Landarbaso abesbatza, eta Europako Sari Nagusian Kup talde tolosarra lehiatuko da

Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak bertako abesbatza batek Europako Sarian parte hartzea nabarmendu du: «Bertan lehiatze hutsa saria da» **o2**



Asteburu honetan Abesbatza Lehiaketaren aurreko topaketa egin zuten hiru koruk San Frantzisko elizan. KUSK

Loidi baserriak irabazi du Zizurkilgo Azoka Bereziko postu onenaren saria

Jende asko izan zen azokan egon ziren 50 postuak bisitatzen, igandean zehar; Kantu Jirakoek giroa alaitu zuten euskal abestiekin **o4**



Postu asko jarri zituzten Zizurkilgo Azoka Berezian. s.gomez

Indarkeria sexistari buruzko bi ikuspegi lantzen ari dira egunotan

Tolosako Berdintasunaren Aldeko II. Astea, indarkeria jasan duten emakumeentzako talde atentzioari buruzko tailerra eta erasotzaileen esku-hartze psikologikoaren inguruko hitzaldia antolatu dituzte **o3**

195.000 € (100m² + 100m²)

IBARRA

Promozio berria

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Errausketa zerbitzu berrina martikan!
Errausketa laze propioarekin



Ikerna Badiola kultura diputatua, Ana Arretxe TEEko lehendakaria, Ibai Iriarte Tolosako alkatea eta Juanjo Goia Kutzako ordezkaria, aurkezpenean. HITZA

↓ Parte hartzaileak

ABESBATZA LEHIAKETA

- Heinrich-Schütz-Ensemble Vornbach (Alemania)
- Landarbaso abesbatza (Euskal Herria)
- Loboc Children's Choir (Filipinak)
- Luar Vocal Ensemble (Letonia)
- The Vocal Ensemble Novy-Vekö (Errusia)
- Peques del Leon de Oro (Asturias)
- The Songmen (Erresuma Batua)
- The Choral Project (Estatu Batuak)
- The Gentlemen Singers (Txekiar Errepublika)
- Children's Choir Of Tv and Radio Of St. Petersburg (Errusia)
- The Wolfratshauer Children's Choir (Alemania)
- Kammerchor Der Hochschule Für Künste Bremen (Alemania)
- Cantabile Kuoro (Finlandia)
- Con Anima (Letonia)
- The Convivium Singers (Erresuma Batua)
- El Leon de Oro (Asturias)
- Oreyka (Ukraina)
- Guangzhou Children's Palace-Choir (Txina)
- Latvian Youth Choir Balsis (Letonia)

Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa eta Europako Sari Nagusia eskutik emanda

Errenteriako Landarbaso abesbatza ariko da Lehiaketan; Sari Nagusian, berriz, Tolosako Kup taldea

Iñigo Terradillos

Berezitasun batekin datorrigu aurtengo Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, beraren baitan Europako Sari Nagusia ospatuko dela, hain justu. Azpimarratzeko beste ezaugarria krisia da, beste urte batez bere eraginpean gauzatuko baita ekimena. Hori da, gainera, bai Abesbatza Lehiaketa bai eta Sari Nagusia elkartzearen arrazoia, «gastuak murriztea lortzeko». Urriaren 29tik azaroaren 5era bitarte hartuko ditu Tolosak herrialdeen arteko estilo, interpretazio edota abesbatza literatura trukatzeko, eta Euskal Herriko musika tradizioa eta kultura ezagutzera emateko helburu duten bi ekimenak.

43. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan 12 herrialdeetatik etorritako 19 abesbatzek hartuko dute parte. Horietaik bat izango da euskalduna, Errenteriako Landarbaso abesbatza. Honen emanaldia hilaren 30ean izango da, Leidor aretoan, 16:00etan. Errenteriarrek ahots nahasiak sailean lehiatuko dira, beste zazpi abesbatzarekin batera. Ahots taldeetan bost abesbatza ariko dira, eta haur abesbatzetan, berriz, sei.

Lehiaketa fasea urriaren 29tik 31ra izango da, eta sari banaketa ekitaldia azaroaren 1ean egingo dute. Sari Nagusia eskuratzen duen abesbatzak datorren urtean Maribor-en (Eslovenia) izango den Europako Sari Nagusian aritzeko txartela lortuko du.

Ohi bezala, epaimahaiak izango du abesbatzarik onena aukeratzeko ardura. Francesco Luisi, Irena Kolarova, Miklos Csemiczky, Peter Broadvent, Ursa Lah, Enrike Azurza eta Xabier Sarasolak osatzen dute, azken hau delarik lehendakaria.

Bestalde, abesbatzen musika tolosarrei ezezik beste hainbat herritarra zabaltzeko helburua mantentzen dute, eta horretarako laurogei kontzertu inguruk osaturiko zirkuitua antolatuko dute.

Sarrerren salmentari dagokionez, urteroko harrera ona izaten ari da, eta horren adierazle, bonuak agortu direla dagoeneko. Gainerako sarrerak Servikutxan nahiz Leidorreko leihatilan eskuratu ahaliko dira.

Europako ahotsik onenak

Europako Sari Nagusian Tolosako Kup taldea lehiatuko da. Pasa den urteko Tours-eko lehiaketa irabazi ostean lortu zuten bertan aritzeko txartela. Beraiekin batera, beste lau abesbatza neurtuko dira azaroaren 5ean.

Bestalde, Abesbatzen Topaketa egin dute asteburuan Tolosan, herriko Hodeiertz koruaren parte hartzaiekin. San Frantzisko elizan bildutako jendetzak maila handiko saioaz gozatu zuen.

EUROPAKO SARI NAGUSIA

- Kup taldea (Tolosa)
- Coro Citta di Roma (Italia)
- Consono Chamber Choir (Alemania)
- Svenska Kammarkör (Suedia)
- Cantemus Children's Choir (Hungaria)

Ana Arretxe • Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria

«Ez da lehendabiziko krisia, eta ez da azkenekoa izango»

I. Terradillos

Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen duen Abesbatza Lehiaketak krisiaren ondorioz diru laguntza txikiagoa izan du aurtengoan. Dena den, Ana Arretxe TEEko lehendakariak dioenez, «lehiaketaren kalitatea beste urteetakoaren parean mantentzen da».

Zer nabarmenduko zenue Lehiaketaz eta Sari Nagusiaz?

Oso garrantzitsua da bertako abesbatza batek Europako Sari Nagusian parte hartzea, bertan lehiatze hutsa saria baita. Abesbatza Lehiaketan, berriz, Landarbaso abesbatza azpimarratuko nuke. Bi gipuzkoar koru hor erogtea ez da nolana hiko.

Krisia darabilzue aurtengo ere ahoan?

Aurtengo gertatu zaiguna da bi ekimenak elkartu zaizkigula, hau da, Lehiaketa eta Sari Nagusia. Gastua, beraz, handiagoa da. Horregatik, gastu hori murrizte aldera elkartu egin ditugu. Bestalde, Abesbatza Lehiaketarako diru laguntza murriztu egin zaigu, eta Sari Nagusikoa ez dago ziurtatuta oraindik, baina badakigu baxuagoa izango dela. Gure helburua ahal dugun gehien aurretzen saiatzea izaten da, kalitatea bermatze aldera.

Murrizketa hauek lehiaketa arriskuan jaral dezakete?

43 urte dituzte lehiaketak. Hau ez da lehenengo krisia, eta ez da azkena izango. Besteak pasa ditugu, eta

hau ere pasako da. Baikoratasunez hartu behar dira gauza hauek.

Tolosarrek ba al dute Europako Sari Nagusia eskuratzeko aukera?

Denek dute aukera. Bertara iristea saria da. Gainera, lehiaketa honetan ez da jakiten nor geratu den bigarren, eta nor hirugarren. Irabazlearen izena ematen da jakitera, eta besteak finalista bezala geratzen dira.

Krisia izan arren, urtero bezala, harrerera on izaten ari da sarrerren salmenta.

Bai, hala da. Bonuak primeran saldu dira, eta beti bezala, haur abesbatzen emanaldien salmentan onak errepikatuko dira. Euskaldunen emanaldirako sarrerak ere oso ondo salduko dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gutuna**Antton Izagirri, etsipenez**

Harriduraz idazten dut. Urteak eman ditugu ikuspegi politiko ezberdinetatik udaletxean elkarrekin eta benetan diotsut, zuri buruzko beste irudi bat nuen. Jokin Bildarratzi zuzendu diozuen «gutun-barren huste» hori sinatzeak, egiaz irudikatzen zaitu.

Politikan ere badugu duintasuna eta zurea zitakeria hutsa da.

■ Patxi Ezkiaga Ormazabal.

Elena Calen bikote ohiak labanarekin hil zuela aitortu du epaiketan

Atzo hasi zen ustezko hiltzailearen aurkako epaiketa, eta gaur jarraituko du, hilketaren lekukoarekin

Erredakzioa

Atzo hasi zen iaz Tolosan hil zuten Elena Calen hilketaren argitzeko epaiketa, eta lehen egunean auzipetuak labanarekin hil zuela aitortu zuen. Emakumearen bikotekide ohi zen, eta aitorenarekin bere defentsaren tesia bota du, alegia, stripuz hil zutenarena.

Fiskaltzak hamalau urteko espetxe zigorra eskatzen du gizonarentzat. Epaiketa gaur jarraituko dute emakumea hil zutenaren horren bikotekide zenaren testigantzarekin, hain justu, hilketaren lekuko izan zenarekin.

Epaiketa, 21 hilabete ondoren

2010eko urtarrilaren 17an izan zen hilketak. 21 hilabete igaro dira, beraz, epaiketa hasi arte. Tolosako herriko tren geltokiaren ondoan etxola batean gertatu zen. Bertan bizi ziren Elena Cal eta bere bikotea, eta ustezko hiltzaileak gauak ere bertan igarotzen zituen.

Bikoteak deitu zuen Ertzaintzara, gertatutakoaren berri emateko. Horren ondoren, ustezko hiltzailea Tolosako taberna batean atxilotu zuten. Bikotea ere hasiera batean atxilotu zuten ertzainek, horrek emandako azalpenak «kontraesankorrak» zirelako.

Calen hilketak hainbat gaitzespen jaso zituen, bai erakundeen eta baita gizarte eragileen aldetik ere.



Josebe Iturrioz Berdintasuna ataleko teknikaria, Edurne Mendia zinegotzia eta Jesus Maria Penilla Berdinbide elkartearen kidea, aurkezpenean. HITZA

Indarkeria sexistari buruzko bi ikuspegi, Berdintasunaren Aldeko II. Astea

Indarkeria jasan duten emakumeentzako talde atentzioa bi tailerretan lantzen ari dira; bihar izango da bigarrena

Imanol Garcia

Berdinbide elkarteak eta Tolosako Udaleko Berdintasun atalaren bigarren urteko antolatutako Berdintasunaren Aldeko Astea. Indarkeria matxistaren inguruan, bi ikuspegi jorratzen ari dira. Alde batetik, indarkeria jaso duten emakumeentzako talde atentzioa emateari buruzkoa. Bestetik, esku-hartze psikologikoa gizonentzako erasotzaileekin. Horrez gain, Egipton emakumeek bizi duten egoera erakusten duen *Kairoko emakumeak* filma ikusi ahaliko da. Berdintasunaren Astearen aurkezpenean, Edurne Mendia Kultura zinegotzia, Josebe Iturrioz Berdintasun teknikaria eta Jesus Maria Penilla Berdinbide elkartearen kidea izan ziren.

Egitarauko ekitaldietako bat bi egunetan izango da. Taldeko atentzioa indarkeriatik bizirik iraun duten emakumeekin izena du tailerrek eta Las Dignas mugimenduko Dinora Aguiñadak dinamizatuko du. Atzo izan zen lehen saioa, eta bihar izango da bigarrena, udaletxean, 18:00etatik 21:00etara.

El Salvadorren sortu zen Las Dignas mugimendua. Bertan egindako lanaren berri emango du Aguiñadak. Indarkeria matxistaren inguruan, emakumeen lan taldeei eman diete lehen tasuna, eta emaitzak oso onak izan

dira. «Hemen, Euskal Herrian, oso gutxitan osatzen dira emakumeentzako taldeak indarkeria matxistari aurre egiteko, beraz asko daukagu beste herri batzuen praktiketatik ikasteko», azaldu dute antolatzaileek.

Gaur arratsaldeko ekitaldian *Esku-hartze psikologikoa tratatu txarrak ematen dituzten gizonentzako erasotzaileekin* gaia jorratuko dute. Javier Madina psikologoa izango da hizlaria. Bi zati izango ditu. «Lehen zatian gizonentzako indarkeriaren arrazoi posibleak aipatzen dira: gu bizi garen gizarte patriarkalaren funtsezko papera, eta kontrolatu zein deuseztatzeko indarkeriak dakarren errefortzua», esan dute. «Alde batera uzten da emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria buruko gaitzetan duelako ideia, eta azaldu egiten da zein den substantzietatik mendekotasunaren papera indarkeriazko jokabidearen eragile eta larrigarri gisa». Horrez gain, gizon erasotzaile askok dituzten nortasun ezaugarri nagusiak deskribatuko dira hitzaldian.

Bigarren zatian aztertu egiten da tratatu txarrak ematen dituzten gizonentzako erasotzaile psikologi-

↓ Egitaraua**URRIAK 18, GAUR**

■ **20:00.** *Esku-hartze psikologikoa tratatu txarrak ematen dituzten gizonentzako erasotzaileekin* kultur etxean. Hizlaria: Javier Madina.

URRIAK 19, BIHAR

■ **18:00-21:00.** *Taldeko atentzioa indarkeriatik bizirik iraun*

koa. «Hertsapenezko/ezinbestezko terapiaren baldintza partikularrak deskribatuko dira. Bestalde, tratamenduaren zenbait alderdi garrantzitsuren berri ematen da», gaineratu dute.

Azkeneko ekitaldia Yousry Nasrallah zuzendariaren *Kairoko emakumeak* filma izango da. Etzi emango dute, zine klubaren saioarekin bat eginez, Leidor aretoan. Bi emanaldi izango dira, 19:00etan eta 21:45ean. Lehenengo saioaren ondoren, solasaldia izango da. Filma Jesus Maria Penillak aurkeztuko du. Melodrama politikoaren eta pertsonalaren arteko bide erdian dago *Kairoko emakumeak*.

duten emakumeekin tailerren bigarren zatia, udaletxeako pleno aretoan. Dinamizatzailea: Dinora Aguiñada.

URRIAK 20, ETZI

■ **19:00 eta 21:45.** *Kairoko emakumeak* filmaren proiektzioa Leidor aretoan. Aurkezlea: Jesus Maria Penilla.

«Emakumearen indarra aldarrikatzen du, Egiptoko zineman, izan ere, beti bestearen mende edo apaingarri gisa agertu izan baita», diote antolatzaileek. «Argumentuan zenbait istorio gurtzatzen dira funtsezko galdera baten inguruan: zer lekutan gertatzen da maitasuna, negoziatioak tartean sartzen direnean? Gainera, Kairoko gizarte-maila guztien erretiratua azaltzen da azpian». Zinema salatzailea, konprometitua eta su-piztailea da. «Filmak dinamika onartezin bat salatzen du, arbasoetatik jasotako errealitate zaharkitu baten berri ematean», gaineratu dute.

Iragarki laburrak**LANA**

■ **Mutila.** Mutil euskalduna behar da, ordu batzuek lan egiteko. Interesa duenak dei dezala 943 65 03 06 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bai-

nugela, komuna, egongela-jan-gela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, lorategia eta trastelekua ditu. Interesatuak deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean 55 m²ko atiko rustikoa salgai. 2 logela, sukaldea, egon-

gela eta komuna ditu. Terraza ikusgarria du. Berritua. Interesatuak deitu 943 57 13 87 telefono zenbakira.

■ **Autoa.** BMW 130i autoa salduz gero. 2006. urtekoa eta 54.000 kilometrorekin. Interesatuak deitu 665 72 47 17 telefono zenbakira.


Berastegi



FIKZIOZKO EZKONTZA

Berastegin egun handia izan zen larunbatean. Bi herritarren arteko fikziozko ezkontza izan zen. Ezkontza bikoteaz gain, 40 lagun inguru izan ziren gonbidatuak. Guztia ezkontza batek eskatzen duen dotoretzat jantzi ziren. Mireia Garalburu eta Xabi Barriola bikotea ezkontu zen, eta festa Urepel Biltokian jarraitu zuen. Jende asko bildu zen ezkontza ikustera, eta baita afaria ere. Beste bikote batek jaso zuen ezkontza pingina. Beraz, ezkontza gehiago ere aurrerakusten dira Berastegin. Festa polita izan zen. [Lehen](#)

Zizurkil



LOIDI BASERRIKO POSTUA POLITENA

Zizurkil Golan egun guztian zehar izan zen jendearen joan-etorria Azoka Berezian. 10.00etan eman zitzaion hasiera azokari, eta jende asko inguratu zuen. Herriko baserriaren postua gain, artisauek ere izan ziren. Guztira 50 postu izan ziren. Postuek gain, Kantu Jira izan zen, eta azoka euskal abestiek in alaitu zuten. Haurrentzat jolasak ere izan ziren. Urtero bezala, herriko postua saritu zuten, eta Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria Loidi baserriko Anpario Loidiren postuarentzat izan zen. Udalak antolatzen diren autobusak ere ederki ibailatu zuten azokaz gozatu nahian izan zutenek. Bazkari herrikoa egin zuten Zimertioan, eta arratsaldean giza-proba ikusteko aukera izan zen. [Lehen](#)

Tolosa



IÑURRATEGIREKIN MENDIAZ SOLASEAN

Ostralean, Alberto Iñurategi mendizalea Tolosan izan zen. Galtzaundik antolatuta etorri zen Oargi el-karterara, eta, hasteke, arratsaldean Porrotaren alde hitzaldia eskaini zuen. Ondoren, afuldu egin zuten, eta afariaren ostean, mahaiaren bueltan hitzketan aritu ziren. Bertaratuek Iñurategi galderek egiteko aukera izan zuten. Iñurategi eta bere filosofia gerutik ezagutu zituzten, eta porrota ulertzeko berak duen ikuspegiaz aritu ziren. [Lehen](#)

Tolosa



BUKATU DA AUZOKO FESTA


San Esteban auzoko Kultur Astea bukatu da. Ekitaldi baterikoa izan da, eta jende askok parte hartu du. Larunbat arratsaldean tokie-nei zuzendua izan zen. Haur jolasek gain, zaldi gurdian ere gustura ibili ziren. Era berean, graffti erakustaldia, mus txapelketa, bokola-te bera... izan zituzten. Igande goiza dianarekin hasi zuten, auzotarak esnatuz eta giroa alaitzeko. Bazkalteko babarrun jatea egin zuten, eta arraitzeko dantzaldia izan zuten. [Lehen](#)

Tolosa



LASA ETA ZABALA GOGOAN IZAN DITUZTE

Lasa eta Zabalaren desagertzaren 28. urteurrena bete zen larunbat gauean. Tolosako Amnistia Aldeko Mugimenduk deliuta, asteburuan gogoan izan dituzte Joxi Lasa eta Joxean Zabala torturatu eta erailak. Ostralean, Trianguloa plazan elkarretarata egin zuten, eta larunbatean, Ostralean auzoan duden moniltoan elkaritu ziren omenaldi egiteko. Lehenik lore eskaintza egin zuten, eta agurra dant-zatu ostean, «bikimia hitza behar da, memoria hitza» ekarri nahi izan zuten gogora. Eskualdeko gaz-teek ere, familiarako kideei lore sorta bana eman zieten. Omenaldi hungarria bukatzeko, bertaratutako guztiek Eusko gudariak abestu zuten. [Lehen](#)



hitzaren udazkeneko arropa eskaintza

Haurrentzako jertseak: 25 €

Koloreak: Mota + Berdea
 Mota + Lila

Helduentzako jertseak: 29,5 €

Koloreak: Hitzak
 Giza eta animalien motak
 Mota +

Noiz eta nota egin eskaria?
 Urriak 28 bitarte duzue aukera eskaera egiteko

• Telefonoa: 902-452 02 01
 • Postaz: harpidetza@hitza.info

hitza

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Laskorain-Colo Colo 3-3

Sailkapena

- 1. Ebrosala 9 p.
- 2. Laskorain K.E. 7 p.
- 3. Concepto Egile 7 p.
- 4. Zalatambor 6 p.

HIRUGARREN MAILA

Egintza Transportes

Lakuntza- San Jorge Santurtzi 4-1

Buruntza-Ibarra 2-5

Sailkapena

- 1. Sestao 12 p.
- 2. Bilbo 10 p.
- 3. Gora 9 p.
- 5. Ibarra 9 p.

8. Egintza Transportes

Lakuntza 5 p.

EUSKAL LIGA

Kukuiaga-Tolosala 2-3

Tolargi-Isu Leihoak 4-4

Eskolapioak-Lagun Onak 9-4

Sailkapena

- 1. Tolosalaga/Hirukide 12 p.
- 2. Mamarigako 12 p.
- 3. Uxoa 9 p.
- 4. Eskolapioak 9 p.
- 5. Tolargi 7 p.
- 6. Goierri 6 p.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

Tolosa-Aurrera 4-1

Sailkapena

- 1. Tolosa 15 p.
- 2. Real Union Club 14 p.
- 3. Anaitasuna 14 p.
- 4. Berio 12 p.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Tolosa B-SanPedrotarra 4-0
Eibartarrak-Intxurre 5-2

Sailkapena

- 1. Astigarragako Mundarro 18 p.
- 2. Ostadar 15 p.
- 3. Beti Ona 14 p.
- 4. Tolosa B 13 p.
- 5. Mariño 12 p.
- 6. Usurbil 12 p.

Sailkapena

- 1. Soraluze 14 p.
- 2. Anaitasuna 13 p.
- 3. Mutriku 11 p.
- 4. Lagun Onak 11 p.
- 15. Intxurre 5 p.
- 16. Aretxabaleta B 4 p.

SASKIBALOIA

Bidebide Ibiza 68
PFERD Araberri 55

Sailkapena

- 1. Bide Bide Ibiza 3-0
- 2. C.B. Santurtzi 3-0
- 3. PFERD Araberri 2-1
- 4. Sekyes 2-1
- 5. Leihoak Zarautz 2-1
- 6. Mondragon Uni. 1-2
- 7. Lizuan.com 1-2

Bengoetxea VI.ak aurrera jarraituko du lau t'erdikoan

Amezketako Saralegik ez du Xala garaitu; Barriola eta Olazabalek asteburu honetan izango dituzte partidak

Itzea Urkizu

Eskualdeko hiru pilotarik norgehiagokak jokatu zituzten pasa den asteburuan. Lau t'erdiko Txapelketako final laurdenetarako txartela lortzea zuten helburu, eta Oinatz Bengoetxeak soilik lortu du sailkatzea. Azken honen aurka aritu zen Olaetxea, eta Ives Salaberriren aurka jokatu zuen Saralegik, ez zuten garaipena eskuratzeko lortu. Modu honetara, faboritoez ez zuten hutsik egin, eta apustuek ziotena bete zen bi partidetan.

Bengoetxea VI.ak, Olaetxea lizartzarren aurka jokatu zuen partida larunbatean, Iruñeko Labrit pilotalekuan. 22-10eko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka, leitzarraren alde. Biek ala biek, ez zuten euren maila erakutsi, baina Oinatz Bengoetxeak

nahiko erraz irabazi zuen Labriten. Leitzarrak frontoian duen esperientzia erakutsi zuen partidaren artean, Olaetxea lizartzarra nekatu zen arte. Honek, ahal zuen guztia eman zuen norgehiagokaren hasiera-hasieratik, baina gorputzak ez zion nahi bezala erantzun, eta eskuetako minaz aritu zen.

Horrela beraz, Oinatz Bengoetxeak Juan Martinez Irujoren aurka jokatu beharko du hurrengo partida, Eibarko Astelena pilotalekuan; datorren igandean izango da, urriaren 23an. Irujoren aurka irabaziko balu, finalerdietako ligaxkarako sailkatuko litzateke.

Saralegik ezin izan zuen

22-12ko emaitzarekin itzuli zen etxera Ekaitz Saralegi amezketarra, herenegun Astelena pilotalekuan Xalaren aurka jokatu zuen partidatik.

Saralegik ondo eutsi zion partidari 10-11ra bitarte, eta Xala lekuindarra estutzea ere lortu zuen; ordura arte ez zen Buruzburuko txapelkunaren eta amezketarraren artean desberdintasun nabarmenik ikusi kantxan.

14-12kotik aurrera, ordea, lekuindarra izan zen nagusi, eta 0-8ko partzialarekin partida irabazi zuen. Xalak 14 tanto burutu zituen partidaren artean, eta Saralegik, aldiz, 8. Lapurtarrak Titin III.aren aurka jokatu du asteburu honetan.

Asteburu honetan, gehiago

Asteburu honetan ere, eskualdeko pilotarietako kantxan neurtu beharko dituzte beren indarrak. Abel Barriolak eta Mikel Olazabalek, partida bana jokatu dute, lau t'erdian.

Barriola leitzarra datorren ostiralean sartuko da Lau t'erdiko Txapelketako lehian, final laurdenetan. Julen Retegiren aurka ariko da, Beasainen. Partida irabazten badu, zuzenean sailkatuko da finalerdietako ligaxka jokatzeke. Mikel Olazabal aresoarrak, berriz, igande arratsaldean izango du bigarren mailako Lau t'erdiko partida, Lemunoren aurka. Joan den asteburuan 22 eta 8ko emaitzarekin irabazi zion Merino Iari, eta bolada onarekin jarraitu nahiko du aresoarrak, Eibarko astelena frontoian.

Ez irabazi arren Zizurkilek lan txukuna egin du giza proban

76 plaza egin zituen herenegun Zizurkilen izandako Gipuzkoako Giza Proba Txapelketan

R.C. Zizurkil

Orioki irabazi zuen igandeko Gipuzkoako Giza Proba Txapelketan.

2.000 bat pertsona hurbildu ziren Zizurkilera lehiaketa ikusteko eta giro ezinhobean aritu ziren kirolari gazteak. Gogoratu behar da gainera, Zizurkilen Azoka Be-

rezia ospatu zutela egun guztiak zehar.

Bost taldek hartu zuten parte: Orioki, Aiztondo-Oarso, Zizurkil, Urretxu eta Zumarraga.

Talde bakoitza zortzi lagunek osatzen zuten, eta 950 kiloko harriak erabili zituzten.

Bi harri zeuden, eta batekin ordu laurdena egin eta gero, bestearekin ere ordu laurdeneko tанда egin zuten.

Orioki garailea

Orioki taldeak bigarren aldiz irabazi zuen txapelketa, bigarrenari, Aiztondo-Oarsori, bi plaza atera-ta.

Orioki 87 plaza egin zituen, eta Aiztondo-Oarsok 85 plaza.

Taldekiek 700 kiloko muga zuten eta Orioki 657 kilo pisatu zituen, eta Aiztondo-Oarsok 655 kilo.

Hirugarren Urretxuk egin zuen, 83 plaza eta 4 zinta eginda. Urretxukoek 660 kiloko pisua eman zuten.

Zizurkilek lehen aldiz hartu zuen parte txapelketan eta laugarren egin zuen 76 plaza eta 4 zinta eginez. Zizurkileko gazteek 655 kilo pisatu zuten.

Zumarraga izan zen azkena 73 plaza eta 8 zinta egin zituelarik. 608 kilo pisatu zuen taldeak.



Bide Bide Ibiza taldea ligako lehen postuan dago. HITZA

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun
urriaren 31 baino lehen eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, **OPARI**



Harremanetarako:
902-82 02 01 | harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean, azaroaren 2an, **asteburu bat zotz egingo dugu** Aireberria Hotelaren eskutik.



*Saria 2011n erabili behar da.

Urrutia eta Telleria ez ziren akordio batetara iritsi

Leitzako harri jasotzailea eta Lasarteko gaztea 2012an berriz ere bilduko direla adostu zuten

R.C.

Josetxo Urrutia harri jasotzaile leitzarra aurkari bila dabil oraindik. Pasa den astean bota zuen de-

safioa: norberak bere pisuaren bi-koitza jasotzea harri kubikoarekin. Eta hitzordua ere jarri zuen pasa den ostiralerako. Urrutia puntual azaldu zen Tolosako Kantabriko tabernara, baina aurkaria, Lasarteko Urtzi Telleria, 20:30ak aldera iritsi zen. Ez zuten lortu adostasunera iristerik hala ere, eta desafioa lotu gabe utzi zuten.

Batetik, data adosteko arazoak izan zituzten; Urrutiak apustua

datorren abenduaren erdialdera jokatu nahi du, edo beranduen, abendua amaitu aurretik, baina Telleriak denbora gehiago behar zuela esan zion.

Harriarekin ere ez ziren ados jarri; Urrutiak kubikoa erabili nahi du, baina Lasartekoak ez zuen argi ikusten.

Bi harri jasotzaileak berriz elkartuko dira desafioaren baldintzak itxi, eta eguna jartzeko, baina 2012. urtean izango da hori.



Kantabriko tabernan elkartu ziren ostiral iluntzean. R.C.

Laskorainek 3-3 berdindu zuten Zaragozako Confort Colorekin

Sailkapen nagusiko bigarren postuan daude tolosarrak, Ebrosalaren atzetik, 9 puntutik 7 lortuta

Unai Barriola Tolosa

Partida erekatua bizi izan zen pasa den larunbat arratsaldean Usabalen. Elkarren aurka inoiz

aritu gabeko bi taldeen arteko lehia 6 golekin amaitu zen; 3 alde bakoitzean.

Aurten sarritan gertatuko den bezala, talde historikoak izango ditu Laskorainek aurrez aurre. Aste honetan esaterako, Zaragozako Confort Colo, Aragoiko talde zaharrenarekin neurtu behar izan zituzten indarrak.

Partidari aurre egiteko lider-tzian zegoen ikastolako taldeak Murgi, Belloso eta Alonsoren ba-

jak izan zituen. Besaburuko luxuzioarekin azken unera arte zalan-tzan zen Joniko, ordea, taldekide-en ondoan aritu zen egoerak hala eskatuta.

Laskorainek norgehiagoka serioa jokatu zuten; hasierako minutuetako aurkariaren ekinari ondo eutsi, eta kontraeraso arris-kutsuak eginez pasa zuen lehen zatia.

Defentsan lana bikain gauzatu zuten taldeak, eta Endikak ez

zuen aurreko asteetako erakus-taldirik eman behar izan, baina kontraerasoei amaiera egokia ematen ez ziren fin ibili horitxo-ak.

Etxebe, bikain

Lehen 20 minutuetako gol bakarra, areto futbolera bikain molda-tu eta demboraldi hasiera aparta burutzen ari den Etxebek egin zuen, korner batetik abiatutako jokaldi bat, jaurtiketa zehatz ba-tekin amaitu ostean.

Laskorainekoak ondo ari dira eta mailari eusteko helburua bide onetik doala diote

1-0 iritsi zen, beraz, atsedena-l-dia. Indarrak berreskuratu eta ideiak argitu ondoren, Laskorain baloia jabe izan zen, eta aldea areagotzen saiatu zen; baina in-tentsitate eskasarekin aritutako jokaldi batean, banakoa erdietsi zuen Confort Colok.

Gol honek etxekoan urdurita-sunak eta presak piztu zituen, eta ahalegin bizian aurkariaren at-e-rantz jo zuten Javiren mutilek. Ikastolako aukera argi bat es-kuarekin mozteagatik aurkari-ek jasandako kaleratzeak, asko la-gundu zuen lan horretan, jokala-ri bat gehiago izatearen abantai-la dotore probestu baitzuen Loit-zunek. Etxekoan joko bolada onari, Loitzunek berak eman

zion jarraipena; partida amaitze-ko 5 minuturen faltan 3. gola gau-zatu zuen Jonikorekin batera bu-rurutako kontraeraso bizkor ba-tean.

Zaragozarrek

Zaragozarrek, ordea, ez zuten amore eman, eta atezain jokala-ri taktika erabiliz, bigarren gola egin zuten minutu bakarraren fal-tan.

3 puntuak laztandu ostean, markagailua horren estu ikusita, urduritasunak lotuta utzi zituen horitxoak eta aurkari-ek bikain aprobeztatu zuten egoera, parti-da amaierako bozinarekin batera berdinketaren gola egiteko.

Azken segunduan alde eginda-ko bi puntuak taldea burumakur utzi bazuten ere, 9tik 7 puntu lor-tuta sailkapeneko 2. postuan dira horitxoak, denboraldi hasiera aparta burututa.

Bide onetik

Maila berrira igotakoan sortu li-tezkeen beldurrak alde batera utzi, eta mailari eusteko helbu-ruan bide onetik doaz ikastolako-ak.

Larunbatean 3 puntuak lortu ez arren, orain arteko jokorik onena erakutsi zuten Javi orde-z-kariaren alboan eta Javi eta Aito-rrren gidaritzapean aritu ziren Endika, Beñat, Lander, Gil, Etxe-be -haserako bostekoa- Joniko, Loitzun, Ekhi, Josu, Xabi eta Aratz jokalariek.



Hiru puntuak lortu ez arren «jokorik onena» erakutsi dutela diote Laskorainekoek. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** 2007tik ziklomotoreei Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egitea derrigorrezkoa da. TÜV Rheinland enpresak bere IAT mugikar zerbitzua herriz herri eramaten ari da, erabiltzaileei azterketa errazteko. Gaur Ferialekuan izango dira, 09:00etatik 13:15era. Ziklomotoreek eta zilindrada baxuko motoek (125 cc. arte) izango dute preferentzia. Ordua hartzeko Irungo bulegora deitu behar da: 943 62 63 00.

■ **Tolosa.** Berdintasunaren Aldeko II. Astearen barruan gaur 20:00etan kultur etxean, *Eskuhartze psikologikoa, tratu txarrak ematen dituzten gizonetakoekin* solasaldia Javier Madinarenekin.

■ **Bidegoian.** Gaur hasiko dira pilateseko eskolak. Bi talde osatu dituzte; lehen taldea 18:30etik 19:30era ariko da, eta 19:30etik 20:30era, bigarrena.

■ **Ibarra.** Larunbatean, hilak 22, Bilbon 17:00etan hasiko den manifestaziora joateko autobusa antolatuko dute. 15:00etan aterako da kultur etxe paretik. Izena Atari, Zubiaurre, Subegi eta Danon Txokoa tabernetan eman daiteke.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Nahia. Igandean 2 urte egin zituen. Zorionak etxekoan eta Miguelen partetik.

Programazioa

28 KANALA

GAUR

- **16:30.** Ur eta lur.
- **17:00.** Foorfur.
- **17:30.** Tolosaldean Gaur.
- **18:00.** Artearen ibilbidea.
- **18:30.** Tertulia.
- **19:00.** Tertulia (jarraipena).
- **19:30.** Tolosaldean Gaur.
- **20:00.** Ikusmira.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

TXOLARRE IRRATIA (107,6)

GAUR

■ **11:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia: besteak beste, Jon Baleztiaga eta Jose Enrike Zeberriok jarri duten erakusketaren inguruko informazioa eskainiko dute.

■ **12:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina: besteak beste, Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxearen arduradunak aurtengo Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaz hitz egingo du; Amaia Negreri elkarrizketa egingo diote, aurreko ostiralean Urkizun izan zen emakume baserriarren inguruko hitzaldiaren harira; eta Elhuyar Fundazioaren eskutik, Quark saioan, DNAREN inguruan ariko dira.

- **13:00.** Lehiaketa.
- **13:30.** Info 7ko albistegia.
- **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- **16:00.** Kolax.
- **16:30.** Txapa Irratia.
- **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina.
- **19:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- **20:00.** Info 7ko albistegia.
- **20:30.** Sound.
- **21:30.** Molotoff Irratia.

Irudia Ibarra



**KALABAZA
ERRALDOIA
GUREAN**

Joxe Mari Galartza ibartarrak 55 kilo eta 600 gramoko kalabaza jaso du Amezketako baratzeetik. Landareak fruitu bakarria eman du eta 55 kilotik gorakoa izan da. Ezer berezirik ez diola bota dio Joxe Mari Galartzak, «ezta botikarik ere». Zurtoina pitzatzen hasia zegoela ikusi ondoren bildu zuen kalabaza. Ondoren, Alegiako pentsu almazenera eraman eta bertan pisatu zuen. Ibarra iristerakoan herriarren jakin-mina berehala piztu zuen Amezketako kalabaza erraldoiak. A. MAZ

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com